

6 – OION - LAPUEBLA DE LABARCA

(2016-11-27)

EZAUGARRIAK

DISTANTZIA: 19,3 km.

DESNIBELA: + 302 m. / - 310 m.

DENBORA: 5 or.

Oion herritik aterata (429m), A-2126 errepidea hartuko dugu eskuinaldetik, Logroñoko norabidean. Komentu zistertar zirkular baten ondoan, ezkerrera hartu eta pista batean sartuko gara. Pistaren hasieran almendrondo batzuk daude, eta mahasti artean jarraitzen du, Majadahonda erreka heldu arte (395m). 3,3 km. Garrantzitsua da bidegurutze horretan eskuinaldetik jarraitzea, ezkerreko bidetik ezin baita erreka gurutzatu. Bidean jarraituko dugu igoera suabea, beste pista batera iritsi arte. Handik, Casas Blancas industrialderaino joango gara. A-124 errepidea gurutzatuko dugu kontu handiz, eta pabiloien ondoan jarraituko dugu, Herpanor enpresara iritsi arte. Ezkerrera jo eta beste pista bat hartuko dugu, San Rafael auzoan Continoren ardandegira iritsi arte (413m). 6,7 km.

Beti mahasti artean ibiliz, Laserna herrira iritsiko gara, eta Ebro ibaiaren ertzerantz jaitsi eta Mantibleko erromatar zubiaren ondotik pasako gara (hondakinak). Beti hegal arabarretik jarrituko dugu, ibaiaren ertzean, eta Assa auzora iritsiko gara, A-124 errepidean (387m). 10,1 km. Berehala errepide hori utzi, eta beste bat hartuko dugu ezkerretik, Ebrora itzultzeko, zalditegi batzuen ondora. Bidezati horizontal luze batetik jarraituko dugu, mahasti artean, eta ardandegi batzuk ikusiko ditugu goialdean pic-nic gune bat dutenak, pinu artean, harrizko mahai eta eserlekuekin (itzalpe gutxietakoa) (404m). 14,7 km.

Aurrekoa baino kota altuagoan doan beste pista batetik jarraituko dugu, eta muino bati bira emango diogu. Handik, presa hidroelektriko bat ikusiko dugu, eta Ebok Errioxara sartzen denean egiten duen bihurtune handia. Azkenean, urrutira, Fuenmayor (Errioxa) eta Lapuebla de Labarca (Araba) herriak ikusiko ditugu. Pistatik jaitsiko gara, errepide bateraino, eta Lapueblaren oineraino iritsiko gara. Oinezkoen bide batetik jarraituko dugu, zubi probintzialeraino. Han, eskailera batzuk ikusiko ditugu, bi zatitan, alde zaharrera igotzen direnak, eta handik, errotonda bat gurutzatu ondoren, etapa bukatuko da (421m). 19,3 km.

